

Nola landu antzerkia eskolan?

Autor: Urra Aguirre, Elen (Graduada en Educación Primaria. Diplomada en Educación Primaria e Infantil, Maestra Educación Infantil).

Público: Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasleak. **Materia:** Antzerkia. **Idioma:** Español.

Título: Nola landu antzerkia eskolan?

Resumen

Adin txikiko haurrak joko dramatikoak oso hurbil bizi dira. Konturatu gabe erabiltzen dute eguneroko jolasean, aita-amaka, dendaka edota pirata dabilzanean. Beraz, berezko joera natural hori aprobetxatuko dugu antzerkiaren erritoetara hurbiltzeko. Antzerkiak eginez, hizkuntza landu eta ondo pasatzea izango ditugu helburu nagusienak. Artikulu honetan, bai Haur Hezkuntzan eta baita Lehen Hezkuntzan jarraitu ditzakegun argibide batzuk azaltzen dira. Antzerkiak lantzerakoan, kontuan izan beharko ditugu haurren hizkuntza maila, adina, gustuko gaiak... hauek ezaguteza funtsezkoak izango dira guztiak inbolukratuak egoteko.

Palabras clave: Antzerkia.

Title: Nola landu antzerkia eskolan?

Abstract

Adin txikiko haurrak joko dramatikoak oso hurbil bizi dira. Konturatu gabe erabiltzen dute eguneroko jolasean, aita-amaka, dendaka edota pirata dabilzanean. Beraz, berezko joera natural hori aprobetxatuko dugu antzerkiaren erritoetara hurbiltzeko. Antzerkiak eginez, hizkuntza landu eta ondo pasatzea izango ditugu helburu nagusienak. Artikulu honetan, bai Haur Hezkuntzan eta baita Lehen Hezkuntzan jarraitu ditzakegun argibide batzuk azaltzen dira. Antzerkiak lantzerakoan, kontuan izan beharko ditugu haurren hizkuntza maila, adina, gustuko gaiak... hauek ezaguteza funtsezkoak izango dira guztiak inbolukratuak egoteko.

Keywords: Antzerkia.

Recibido 2017-09-14; Aceptado 2017-09-22; Publicado 2017-10-25; Código PD: 088055

HAUR HEZKUNTZAN

Adin txikiko haurrak **joko dramatikoak** oso hurbil bizi dira. Konturatu gabe erabiltzen dute eguneroko jolasean, aita-amaka, dendaka edota pirata dabilzanean. Beraz, berezko **joera natural** hori aprobetxatuko dugu antzerkiaren erritoetara hurbiltzeko. Antzerkiak eginez, hizkuntza landu eta ondo pasatzea izango ditugu helburu nagusienak.

Lan egiteko prozedura:

- Antzerkia lantzeko toki berezirik definituta ez badago, gelako txoko bat eskeiniko diogu.
- Eszenatokia eta ikusleak egoteko tokia bereiziko ditugu.
- Mozorrazeko erropek kutxa batean sartu: txapelak, koloreko telak, hurrek etxetik ekarri ditzaketen arropa zaharrak...

Antzerkiak ikasteko bidea:

- Ikasle guztiek ikasiko dituzte antzerkiak, egunero horretarako tartetxo bat hartuz.
- Hona hemen hori lantzeko adibide batzuk:
 - Irakasleak antzerkia ozenki irakurri, eta ahots desberdinak erabiliz pertsonaiak desberdindu ditu.
 - Gelan pertsonaien paperak azaldu eta ikasle bakoitzaren pertsonaia aukeratu (denen artean).
 - Hiruzpalau aldiz errepikatu pertsonai bakoitzak dituen esaldiak.
 - Saio bakoitzean osagai berriak erabili errepikapenak egiteko: mozorrotzea, eserita egotea...
 - Behin antzerkia ikasita, eszenatokia erabili probak egiteko.
 - Saioa hasteko “ bat, bi, hiru ” edo antzeko zerbait erabili, bukaeran txalotu.

- Antzerkia egin ondoren hobetu beharrekoa aipatu, beste taldekoek esandakoa kontuan har dezaten.
- Zuzendutako guztiarekin antzerkia egin.

Antzerkiak lantzeko, honako ideia nagusiak hartu beharko lirateke kontuan:

- Hurrek ongi ezagutzen duten ipuina izan behar da.
- Ipuina behin eta berriro kontatuko da bertako esaldiak barneratzen joateko, irakurtzen ez dakite eta (errepikapena).
- Irakasleak hurren gustuak kontuan hartu behar ditu.
- Irakasleak eredu izan behar du.
- Irakasleak jorratuko du narratzailearen papera (zailena izan daitekeelako eta haria ez mozteko).
- Testuko elkarrizketak motzak izango dira.
- Testuko hiztegia hurren arabera izango da, beraientzat ulerterraza izanik.
- Lehenik elkarrizketak ikasten dituzte irakaslearen laguntzaz, ondoren antzeztan hasi ahal izateko.
- Hizkuntza adierazpena hobetzen eta aberasten joango dira gure laguntzaz eta errepikapenez: intonazioa, erritmoa, ahoskera...
- Antzerki bera behin eta berriro egin daiteke hurrek eskatzen badute, honela, esaldiak barneratu eta naturaltasun gehiagorekin egingo dute.
- Irakasleak idatziko ditu hurrekin ahoz sortu diren testuak.

LEHEN HEZKUNTZAN

Esan daiteke hurrek 6-7 urterekin **fikzioa eta errealitatea** bereizten hasten direla eta ondoren, errealitate horretan beraien burua kokatzen hasten direla. Modu askotara egiten dute, baina batez ere **imitazioa** jotzea da ohikoena. Honela bada, adin tarte honetan, imitatze joera horrekin jolastu eta jokatu dugu. **Inprobisazioa** izango da gure tresna.

Antzerkia ikasteko bidea:

- Irakasleak antzerkiak ozenki irakurriko ditu, behar den intentzioz.
- Bakoitzak antzerkia aukeratu eta taldean jarriko dira. Denbora izango dute ikasleek antzerkia prestatzeko, materialak hartzeko...Gelan dauden materialetara egokitu beharko dira.
- Prestaketaren ondoren, bakoitzak bere antzerkia egingo du. Bukatutakoan ikasleek txaloak jo eta konpondu beharrekoa komentatuko dute irakaslearen gidaritzarekin: pertsonaien itxura, non kokatuta zeuden, nola ahoskatu duten...

Antzerkiak lantzeko, honako ideia nagusiak hartu beharko lirateke kontuan:

- Hurrek ongi ezagutzen duten ipuina izan behar da.
- Irakasleak hurren gustuak kontuan hartu behar ditu.
- Irakasleak eredu izan behar du.
- Hurren bat izan daiteke narratzaile, dagoeneko gai dira eta (nahiz irakaslea beti presen egongo den laguntzeko).
- Lehenik testua behin eta berriro irakurtzen dute, baxuan zein altuan, banaka zein denen artean.
- Testua irakurrita eszenara igo eta altuan irakurtzen dute.
- Pixkanaka testua ikasten doazen heinean papera alde batera utzi eta antzeztan hasiko dira, gorputz mugimenduak sartzen ditzutelarik.

- Hizkuntza adierazpena hobetzen eta aberasten joango dira gure laguntzaz eta errepikapenez: intonazioa, erritmoa, ahoskera... (irakasleak zuzenduko du).
- Antzerki bera behin eta berriro entseatzen da hurrek nahi izanez gero, honela, esaldiak barneratu eta naturaltasun gehiagorekin egingo dute.
- Hurrek idatziko dituzte denen artean ahoz zein idatziz sortu diren testuak.

ANTZERKILARI ON BATEK JARRAITZEN DITUEN PAUTAK

- Ozenki hitz egin, argitasunez.
- Bizkarra ez eman, jendeari begiratu.
- Keinuak, mugimenduak... ondo markatu, hau da, gorputz adierazpena ondo landu eta modu egokian erabili.
- Paperean benetan sartu, pertsonaiaren papera ikasi.
- Ikusleen arabera, gaia aukeraketa egokia.
- Ikusleei euskara/hizkuntza egokitu.
- Erakusgarriak diren traje, janzkerak... lagungarri izango dira.
- Eszenatokia ondo eraiki, erakusgarri eta trabarik gabea.